

IVAN, EMIGRATZAILEA

«Zer arraroa sentitzen naizen herri honetan», pentsatu nuen, maletak desegin ondoren osteratxo bat egitera irten nintzenean. Nire herrialdea, Argentina, oso urrun geratu zen, itsasoaz bestalde. Atzean utziak nituen betiko adiskideak; eta bizikleta, ez baitzen maletan kabitzen; eta Tiburon, nire txakurra, orain amonarekin bizi zena. Izen hori jarri nion hortz fin-finen ilara bat zuelako. Inguratzen zitzaion edonori erakusten zizkion hortz haiek. Mika bezain txikia zen, baina marrazoa bezain ausarta. Tiburon gaixoa, Buenos Airesen geratu behar izan zuen.




Tren geltokitik, oinez igo ginen Santa Anna auzuneraino. Esan zidatenez, han biziko ginen. Errepidean gora gindoazela, uztaileko bero itogarriarekin, oso etxetxo eder batzuk topatu genituen, baina oraindik ez zen gure herria. Haraino iristeko, kale mordoxka bat gehiago zeharkatu beharko genituen.

Eta, halako batean, etxea ikusi nuen. Altua zen, lau bat solairukoa. Ez zuen balkoirik, eta fatxada berdea zuen. Atalondora sartu ginen. Buenos Airesko ateondoan, bazen ispilu handi-handi bat, eta butaka batzuk, etxeko bizilagunen baten zain zeudenak eseri ahal

izateko. Hemen, ez zegoen halako ezer, baina behizat gurasoek lana izango zuten, esan zidatenez; han ezin genuen bizi jadanik.

Baimena eman zidatenean, osteratxo bat egitear atera nintzen. Euri bidea zirudien kale batean zehar abiatu nintzen. Zuhaitz lerro bat zegoen alde bakoitzean. Gure etxearen kalea baino zabalagoa zen, autoak ezin ziren ibili, eta alboetako bankuetan gizon-emakumeak zeuden hizketan. Haurrak alde batetik bestera korrika zebiltzan, baloiarekin jolasten edo txirrindu gainean. Pozik ziruditen. Buenos Airesko nire adiskideak gogoratu nituen. Oso triste sentitu nintzen; nahiago nukeen etxean izango banintz. Izkina batean, «Torrent Santa Anna» jartzen zuen. «Zer esan nahi ote du “torrent” hitzak?», galdetu nion neure buruari. Gurasoek esana zidaten beste hizkuntza bat ikasi beharko nuela. Beharbada, «kalea» esan nahiko zuen.



Gorantz nindoala, plaza bat aurkitu nuen. Ume asko zebiltzan futbolean, eta beste batzuk saskibaloian. Hurbildu egin nintzen, pixkanaka. Harrizko eserleku batean eseri nintzen. Begira geratu nintzen, nola jostatzen ziren. Etsipenez oroitzen nituen Buenos Airesko adiskideak.

—Jolastu nahi duzu? —ahots bat entzun nuen izkina batean, eta nostalgiatik aterarazi ninduen.


—Zer izen duzu? —jarraitu zuen—. Nire izena Mohamed da.

—Ivan.

—Jolastu nahi duzu? Bi baten kontra ari gara, eta beste jokalaria bat beharko genuke


—galdetu zidan berriz.

—Bai, jakina. 2



Futbola gustatzen zitzaidan. Buenos Airesen, arratsaldero aritzen nintzen, adiskideekin. Ona naiz, oso ona eta berehala jakin zuten.

Lehenengo egun hartatik, gogoan dut etxera itzultzean tristura gutxiago neramala, irtetean baino. Herri honetako umeen udako oporrak ziren, eta biharamun goizean txutatzen aritzeko geratua nintzen. Parkearen izena «la Petanca» zen, eta dagoeneko ezagunak nituen Mohamed, Mussa eta Alberto.



Hiru egun geroago, ustekabea izan nuen. Futboleari ari ginela, baloia zelaitik kanpora joan zen, zabuak zeuden toki batera. Bila joatearen nekea kentzearen, han hurbil zegoen neskato bati oihu egin nion:

—Eup! Baloia pasatuko didazu?


Baina ez zidan erantzun. Mugitu ere ez zen egin. Izkinan zegoen, harearekin jolasean.

—Eup! Neskato! Baloia pasatuko didazu?

—Ez dizu entzuten —esan zuen hurbileko ahots batek—. Gorra da. Ikusi egin behar zaitu, zure ezpainak irakurtzeko.

—Zu nor zara? —galdetu nion, harrituta.

—Neskato horren adiskidea naiz. Tania dut izena.



Tania Claudiarengana joan zen. Bizkarra ukitu zion, eta Claudia bueltatu egin zen. Gero eskuekin keinuak egin zizkion, eta baloiaren bila joan zen. Mugitu ezinda geratu nintzen: Claudia zen sekula ikusi nuen neskatorik politena. Ni bezain altua zen, eta ilehoria; hipnotizatzen zuten begi berdeekin. Eder-ederra zen.

Taniak baloia eman zidan. Baina ni ezin nintzen mugitu. Hain zen polita!


—Zeri begira zaude? —esan zidan Taniak.

—Baloiarekin jolastu nahi duzu? —ez nuen handik alde egin nahi.

Taniak Claudiarengana jo eta keinuekin galdetu zion, eta hark baietz esan zuen. Adiskideek aurpegi arraroa jarri zuten, baina bost minuturen buruan guztiak ari ginen futboleant. Jakin nuen Claudiak eta Taniak katalanezko zeinu mintzairaz egiten zuten hizketan. Ez zen hizkuntza hura gurasoek ikasi beharko nuela esana zidatena; beste hizkuntza bat zen! «Benetan bitxia da herri hau!», pentsatu nuen.

Hamabost egun geroago, banekizkien gauza asko. Mohamed Marokotik etorria zen; eta Mussa, Gambiatik. Alberto herrian jaioa zen, baina haren familia Andaluziatik zetorren. Eta Tania eta Claudia bertakoak ziren; eta haien gurasoak ere bai. Guztiak mintzo ziren hizkuntza pilo batean: dela katalanez, dela gaztelaniaz, dela arabieraz, dela jola hizkuntzaz eta ingelesez, eta, gainera, zeinu mintzairaz. Benetan bitxia zen herria!

Egun batean, Taniak proposatu zuen har genitzala bizikletak. Ezagutzen zuen herriko toki bat, bere anaiak askotan bisitatzen zuena. Esplikatu zigunez, jauzi egiteko 3




muintoxoz beteta zegoen, eta zurezko tranpolinak zituen, baita aparrezko igerileku bat ere! Madarikatu nuen txirrindua Buenos Airesen utzi izana! Baina, zorionez, Mussak bere anaiarena utzi zidan. Biciparc La Pomara joan ginen, eta nik imajina nezakeen guztia gairitu zuen. Hasteko, ondoan soropilezko bi futbol zelai zeuden! Bi zelai! Ezin nuen sinetsi!

Eta Biciparc hartan mutil handi batzuk, hamabost bat urtekoak, saltoka eta airean zilipurdiak egiten ari ziren. Beste batzuk, lasterketak egiten ari ziren, eta gazelak ziruditen; eta hainbat beste eremu batzuetan zebiltzan, trial egiten.

—Herri honek denetik du! —oihu egin nuen, pozarren.


—Bada, oraindik ez duzu guztia ikusi —esan zidan Taniak. Nire anaia *skate* eremura ere joaten da, han behean, institutuaren atzean.

—*Skate* eremura? Non da hori?




Zitzu bizian joan ginen. Zoratuta nengoen hainbeste gauza berriekin! Gazte talde batek jauzi egiten zuen igerileku hutsera, patinarekin. Bata bestearen atzetik. Itzulipurdiak egiten zituzten airean, eta arin asko irristatzen ziren.

—Primerakoa da hau! —esan nuen, Claudiari begiratzuz. Taniak irakatsia zidan zeinu mintzairaz hitz batzuk esaten. Guztiok elkar ulertzen genuen. Eder-ederra zen.



Beste egun batean Albertoren etxera joan ginen askaltzera. Haren amonak bizkotxo prestatu zigun, eta, jaten ari ginela, zer moduz nenbilen galdetu zidan. Ilea laztandu zidan, eta esplikatu zigun oraindik gogoan zuela Andaluziatik herri honetara heldu zen eguna. Remei auzunera etorri ziren bizitzera. Etxeetan ez zegoen txorrotako urik, eta kuboekin ur bila joan behar izaten zuten Sant Pere hiribideko putzura; eta hura aski urruti zegoen. Azkenean, auzotarrek elkar hartu zuten eta hodiak jarri zituzten ura etxeetaraino ekartzeko. Adierazi zigun, baita ere, herrira etortzeko Castells erreka zeharkatu behar zutela zubi bat erabiliz, eta noiz edo noiz uraren indarrak zubia eraitsi zuela! A zer garaiak! Hainbeste aldatua zen guztia!




Udaren bukaerarako, esperientzia piloa bizi izan nuen. Buenos Airesko adiskideei esplikatzeko nizek, Messengerraren bidez konektatuta. Ez zuten sinesten han bazirela soropilezko bi futbol zelai, bizikletetarako paradisu bat, eta Buenos Aireskoa bezain zoragarria zen patinatzekeo parke bat. Ez eta han zela munduko neskarik politena, Claudia. Guztiek ezagutu nahi zuten! «Adiskideen eta Tiburonen falta nabari dut, baina ederra da Premia de Dalt ere» nioen neurekiko.

Egunak joan, egunak etorri, heldu zen eskolan hasteko eguna.

—Zein eskolatara joango zara? —galdetu zidan Mohamedek.

—Esan didatenez, Santa Anna eskolara —erantzun nuen. 4



—Ni eta Tania ere hara joango gara! Elkarrekin joango gara! Alberto eta Mussa Maria Manent eskolara joango dira.

—Eta Claudia?

—Ez, Claudia Bartzelonara joango da —esan zidan Taniak—. Irakasleak keinu mintzairaz hitz egiten duten eskola batera joaten da.

Albiste hura kolkotik beherako ur txorrota izan zen. Premiatik kanpora? Claudia? Ezin nuen sinetsi! Biziro haserretu nintzen! Nola zitekeen Claudia gure eskolara ez etortzea?

—Ez kezkatu —esan zidan Claudiak—. Larunbatetan elkar gaitezke, petanka jokalekuan. Ados?

—Ados.

Atsegin dut herri hau. Bada hemen alde guztietako jendea. Batzuk duela urte asko etorri ziren. Beste batzuk, duela gutxi. Batzuk hemengoak dira, eta inoiz ez dira mugitu; beste batzuk, berriz, alde egin behar dute eskolara joateko. Benetan bitxia da herri hau, baina ederra da, oso ederra.